

ISSN: 2530-6561
2021eko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan

Josu Benito Andikoetxea

Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan

Josu Benito Andikoetxea

Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia

HEGOA Institutua UPV/EHU

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Jatorria eta aurrekariak	5
3. Turismoa metaketa-ardatz gisa	7
3.1. Kapital-metaketa-aren eta turismoaren arteko lotura	7
3.2. Jabetza kentzeagatiko metaketa	9
4. Turismoa herrialde pobretuetan	10
4.1. Turismoa garapen-tresna gisa	11
4.2. Baldintza desberdinak turismoan parte hartzen dutenen artean	11
5. Turismoa herrialde pobretuetan ezartzeko mekanismoak	14
6. Turismoaren garapenaren inpaktuak	15
7. Ondorioak	18
Bibliografia	19

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan](#)

Egilea: Josu Benito Andikoetxea

hegoak zabalduz - 25. zk. 2021eko abendua

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratoririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>



Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Turismoa da azken hamarkadetan azkarren hazi den sektore ekonomikoa. Kapitalismoak metaketa egiteko duen moduari oso lotutako fenomeno da; izan ere, kapitalismoa etengabe hedatzeko urbanizazio-prozesuak beharrezkoak dira, eta turismoa prozesu horren modu berezi bat da. Etengabeko hazkunde hori lortzeko, turismoak hedatzen jarraitu behar du, eta horregatik sartzen da pixkanaka jarduera hori lurralde pobretuetan.

Eragileek, hala nola nazioarteko erakundeek, estatuek eta korporazio transnazionalak, turismoa pobretutako lurraldeetan ezartzeko prozesuan parte hartzen dute sektore horrek garapena ekarriko duelako eta pobrezia eta desberdintasuna desagerraraziko duelako diskurtsoarekin. Leku horietan, ekonomia hazi egiten da eta enpleguak sortzen dira; hala ere, diskurtso hegemonikoak aipatu ohi ez dituen desberdintasun eta inpaktu negatiboak ere sortzen dira.

Jarduera horrek hazkunde ekonomikoa handia eragin duen arren, zenbait ondorio eta desberdintasun sortu dira, eta zalantzan jarri da sektore hori benetan garapen-estrategia ote den lurralde pobretuentzat. Gainera, krisi-garaiek agerian uzten dituzte prozesu horien kontraesanak, ondorio larriak sortzen baitituzte turismoaren menpeko lekuetan, COVID-19aren egungo krisian ikus daitekeenez.

Hitz gakoak: Turismoa, herrialde pobretuak, garapena.

Abstract: Tourism is the fastest growing economic sector in recent decades. It is a phenomenon closely linked to the capitalist mode of accumulation, as urbanisation processes are necessary for the continuous expansion of capitalism, and tourism is a particular form in this process. In order to achieve this constant growth, tourism has to expand, which is why this activity is progressively introduced into impoverished territories.

Different actors, such as international organisations, states and transnational corporations, participate in the process of implementing tourism in impoverished territories under the discourse that this sector will bring development, eradicating poverty and inequality. In these places, the economy grows and different jobs are created, but a series of inequalities and negative impacts are also generated, which the hegemonic discourse tends to avoid mentioning.

Despite the fact that this activity has caused great economic growth, there have been a series of consequences and inequalities that call into question whether this sector really represents a development strategy. Moreover, crises highlight the contradictions of these processes by generating serious consequences in places dependent on tourism, as can be seen in the current COVID-19 crisis.

Keywords: Tourism, impoverished territories, development.

1. Sarrera

Turismoa da denbora laburrean gehien hazi den industria, eta etekin ekonomiko gehien sortzen dituenetako bat. COVID-19aren krisiaren aurretik, munduko lehen sektore ekonomiko legala zen. Turismoaren Mundu Erakundearen (TME) datuen arabera, nazioarteko turisten kopurua 25 milioikoa zen 1950ean, 674 milioikoa 2000n, eta 1.400 milioitik gorakoa 2018an. Era berean, nazioarteko turismoak sortutako diru-sarrerak hazi egin ziren: 2.000 milioi AEBetako dolarretik 1950ean, 1,4 bilioira 2016an, eta 1,7 bilioira iritsi zen 2019an (munduko BPGaren % 10). Ez hori bakarrik, 2000. urtean turismo-jarduerak 200 milioi lanpostu inguru sortu zituen, munduan legez ordaindutako hamar enplegutik bat (Buades, Cañada eta Gascón, 2012). Diskurtso hegemonikoa zifra horietan oinarritzen da, turismoaren industriak ezartzen den lurraldeen garapena ere badakarrela baieztatzeko. Horregatik guztiagatik, turismoaren inguruan sortu nahi izan den irudi publikoa positiboa izan da beti.

Diskurtso horren pean, nazioarteko erakundeek herrialde pobretuetan turismoaren industria ezartzearen aldeko apustua egin dute, hazkunde ekonomikoa sortzeko eta dagoen arrakala ekonomikoa eta zorra murrizteko, gizarte horien garapena lortzeaz gain. Hala ere, zenbait erakunde azaltzen duten hazkunde ekonomikoa sektore horren ondorio ugarietako bat baino ez da. Turismoak hainbat inpaktu negatibo eragiten ditu ezartzen den herrietan. Ildo horretan, produkzio kapitalistaren esparruan, turismoa kapitala erreproduzitzeko tresna gisa izan da, ekonomia pobretuetan hedatuta. Ekonomia pobretuek jarduera horrek behar duen natura- eta kultura-aniztasuna dute, haietara joateko (Palafox, 2013). Gainera, planetako bazter guztietara iritsi den COVID-19aren krisiak, orokorrean bizi garen sistema nagusia zalantzan jartzeaz gain, turismoa eredu prekarioa eta oso kaltebera dela erakutsi du, beste behin ere.

Testu honen helburu nagusia da turismoak nola funtzionatzen duen eta nola hedatzen den, bai eta lurralde pobretuetan sortzen dituen desberdintasunak eta inpaktuak ere (positiboak zein negatiboak) ulertzea. Horrela, lehenik eta behin turismoaren jatorria aztertuko da, eta, ondoren, turismo neoliberalak inplizituki dakartzan politikak eta sistema kapitalistarekin duen harremana aztertuko dira. Geroago, industria hori lurralde pobretuetan nola ezartzen eta garatzen den aztertuko da, eta, azkenik, sortzen dituen desberdintasun eta inpaktu sozioekonomikoak eta ingurumenekoak.

2. Jatorriak eta aurrekariak

Turismoa giza jarduera bat da, eta zenbait harreman eta fenomeno biltzen ditu, besteak beste, aisialdirako, plazererako, ikasketetarako edo negozioetarako pertsonak leku batetik bestera, Estatuan edo nazioartean, mugitzearekin lotutakoak. Jarduera hori jarduera ekonomikoa sortzen duen praktika sozial baten bidez adierazten da (Portillo, 2002).

Turismoaren azterketak, azken urteotan, azterketa ugari egin ditu mugikortasunari, kultur kontsumo eta ekoizpenari, lurraldetasunari eta nortasun berriei buruz, besteak beste. Ikerketa horiek antropologia, soziologia, ekonomia, geografia eta bestelako diziplinen bidez egiten dira (López eta Marín, 2010).

Testuinguru horretan, turismoaren industriak ekoizpen kapitalistaren modua indartu du, eta, hori ulertzeko, geografiak garrantzi handia du; izan ere, turismo-jarduera espaziala da funtsean, eta haren espazialtasuna kapitalaren, korporazioen eta pertsonen desplazamenduaren eta mugimenduaren mende dago (Portillo, 2002).

Grezia klasikotik datozen beste aurrekari historiko batzuk izan arren, turismoa XVII. mendean sortu zen aristokrata britainiar gazteen artean, ikasketak amaitu ondoren *Grand Tour* delakoa egiten baitzuten, zenbait herrialdetan barna (Montoro, 2018). Turismoa, bere horretan, ez bakarrik klase altuenetara bideratua, XIX. mendearen hasieran sortu zen, kapitalismo industrialaren hazkunde eta finkapenaren eskutik (Thalasselis, 2020).

Hala ere, XX. mendearen erdialdean, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo aldian, nazioarteko turismoa indarra hartzen hasi zen, zenbait faktoreren ondorioz: aurrerapen teknologikoak, industria aeronautikoaren garapena eta Europa mendebaldeko, Ameriketako Estatu Batuetako eta geroago Japoniako enpresa turistikoaren hazkundea (De Kadt, 1979; López eta Marín, 2010). Mundua industrializatzeko langile-klaseak atsedenaldi gehiago hartzea ekarri zuen, oporrak erregularitasunez hartzeko adina denbora libre izan zuten arte. Normalean, langileek aldi berean hartzen zituzten oporrak, eta horrek gaur egun masa-turismo izenez ezagutzen duguna garatu zuen (De Kadt, 1979; Richards, 2017). Garai horretako turismo-eredu nagusia alderdi kuantitatiboetan oinarritutakoa zen, eta enpresa transnazionalak sustatu eta kudeatutakoa (Buades, et al., 2012).


1950. eta 1980. urteen artean, nazioarteko turisten joan-etorrien kopurua 25 milioitik 278 milioira igaro zen (TME, 2020). Hazkunde azkar hori herrialde industrializatuak baliabide ekonomiko garrantzitsuak pilatu zituztelako eta sektorean ziharduten enpresa transnazional handien sare bat sortu zelako gertatu zen (Thalasselis, 2020).

Industria turistikoa maila globalean garatu ahal izateko faktore erabakigarria izan zen nazioarteko erakundeek jokatu zuten papera, hazkunde ekonomikoko estrategia eta garapen modu gisa bultzatuz (López eta Marín, 2010). Hirurogeiko hamarkadatik turismoa sustatu zuten, hainbat arrazoiengatik beharrezkoa zela uste baitzuten. Lehenik eta behin, gerraosteko garairako tresna ideologiko garrantzitsutzat jotzen hasi zen turismoa; izan ere, ekonomia kapitalista globala berrabiarazi, komunismoa geldiarazi eta gerra jasan zuten estatuak berreraiki behar ziren. Bestalde, nazioarteko agendetan garapenak garrantzi handia hartu zuen une hartan, ikusi zen turismoa tresna bat izan zitekeela garai hartan hirugarren munduko esaten zitzairen herrialdeei laguntzeko. Horrenbeste, aitortu egin zen sektore horrek kanpo-politikako tresna ideologiko gisa eta hazkunde ekonomikoa lortzeko bitarteko gisa zuen potentziala, batez ere nazioarteko merkataritza berriarekin bat egiteko zailtasunak zituzten herrialdeena. Horrela, hirurogeiko hamarkadan, gizarte industrializatuetakoa gero eta pertsona gehiago bidaiatzen hasi ziren bitartean, turismoaren diskurtsoa nagusitzen hasi zen, herrialde pobretuentzako jarduera onuragarri gisa (Thalasselis, 2020). 90eko hamarkadatik aurrera, bultzada handiagoa eman zitzaion jarduera turistikoaren garapenari ekonomikoki suspertzen ari ziren Amerika eta Asiako herrialdeetan (Palafox, 2013).

Beraz, turismoaren industria sendotu egin zen mendebaldeko klase ertainak turismoa egiten hasi ziren heinean. Masa-turismoaren aroaren hasieran, turista klase berriak, batez ere, sektoreko enpresa transnazional handiek bultzatzen zituzten kostaldeko *resort*-etan oporrak hartzea aukeratzen zuen, era berean sare transnazional batek bultzatutako garraio-sare batek garraiatzen zituen lekuetan. Baina, urteekin, jarduera turistikoa erreproduzitu eta praktika mota bat baino gehiago sortuz joan da; horren ondorioz, gustuen eta lehenetsuen arabera zatiketa gertatu da (Richards, 2017; Palafox, 2013). Gaur egun, helmuga turistikoek produkzio-modu berri eta ezberdinei aurrea hartzen saiatzen dira, turista gehiago erakartzeko edo horien arretari eusten jarraitzeko (López eta Marín, 2010).

Sektorean, azken hamarkadetan, aldaketak izan diren arren, COVID-19aren krisia iritsi aurretik, bere hastapenetan bezala, produkzio modu honek alderdi kuantitatiboetan oinarritzen jarraitzen zuen, enpresa transnazionalak sustatuta eta kudeatuta, hazkunde ekonomikoa beste garapen-faktore batzuen gainetik lehenesten zuen diskurtso hegemoniko baten pean (Vargas, Castillo eta Zibumbo, 2011).

1. grafikoa: COVID-19aren krisiaren aurreko nazioarteko turistak (milioitan)



Iturria: guk egina. Datuak: Turismoaren Munduko Erakundea (TME)

Nazioarteko turistak kopurua 1.400 milioitik gorakoa zen 2018an. Kalkuluaren arabera, nazioarteko turistak kopurua % 3,3 haziko zen urtero, eta 1.800 milioira iritsiko zen 2030. urterako. Gainera, turismo-sektorea munduko BPGaren % 10 izan zen 2017an. Hala ere, kalkulatzen da turistak joan-etorriak % 70 inguru jaitsi zirela 2020an, pandemiaren krisiaren ondorioz (TME, 2017; TME, 2020).

3. Turismoa, metaketa-ardatz

Kontuan izan behar da turismoa jarduera ekonomikoa dela, eta inbertsiogile, bidaiari-antolatzaile eta, oro har, herrialdearentzat ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzea duela helburu (Portillo, 2002). Horregatik, garrantzitsua da kapitalismoaren eta turismoaren arteko harremanaren azterketan sakontzea.

3.1. Kapitalaren metaketaren eta turismoaren arteko lotura

Gaur egun bizi garen munduko hazkunderaren ideien ingurukoa da guztia. Gaur egungo turismo-eredua kontsumoarekin eta globalizazioarekin oso lotuta dago. Maila globalean, haren jardueraren nazioarteko erakundeek ekoizpen kapitalistaren modua erreproduzitzeko dituzten interesetatik dator (Palafox, 2013), eta, horrela, turismoaren industria interesgarria da kapitalismoarentzat, hainbat arrazoiengatik.

Alde batetik, argitu behar litzateke sistema kapitalista etengabeko hazkundera lortzean eta kapitala metatzen dela bermatzean oinarritzen dela, egunaren amaieran gehiago edukita eta soberakin horren zati bat berrinbertituta, irabazi gehiago lortzeko (Harvey, 2020). Bestela esanda, sistema kapitalistak "soberako produktu" bat sortzeko joera du gainbalioa sortzeko, eta gainbalio hori berriz inbertitu behar da gainbalio gehiago sortu ahal izateko (Aledo, 2008). Horren ondorioz, soberakina etengabe sortzen da, eta, kapitalaren metaketaren logikari jarraituz, urbanizazioa ere hazi egiten da.

Urbanizazioak, gastu militarra eta beste fenomeno batzuekin batera, berebiziko garrantzia du, funtzio bereziki aktiboa baitu, klase kapitalistak etekinak eta interesak bilatzean etengabe sortzen duen soberako produktua xurgatzeko (Harvey, 2008). Kontuan izan behar da kapitala beti ari dela irteera berrien bila, inbertsioak egiten jarraitzeko, hau da, lortutako irabazien zati bat berrinbertitzeko, eta irteeretako bat urbanizazio-prozesuei ekiteko lurzoruak erostea da. Urbanizazioa, beraz, kapitalismo neoliberalaren beste tresna bat da (Lefebvre, 2013).

Ekoizpen-modu kapitalistak dena objektu neurgarri eta salgarri bihurtu behar du, eta, horretarako, lurzoria zatitu, trazatu eta sistematizatu egin behar da. Lurzoruaren kontsumoa funtsezkoa da jarduera ekonomikoetarako, eta, zehazki, urbanizaziorako, urbanizazio-lanak egiteko lekua behar baitu. Horregatik, lurra eskuratzeko harrapaketa-prozesu bat egiten da, eta lehengai horretatik abiatuta hirigintza-proiektuak gara daitezke, hura urbanizatzen hasteko eta egitura ekonomikoaren esku jartzeko (Lefebvre, 2013).

David Harveyren arabera (2008), urbanizazioa gizarte-klaseari oso lotutako fenomeno da; izan ere, inbertsio berriak egiteko kapital-soberakinak klase kapitalistatik ateratzen dira, eta soberakin horien erabileraren gaineko kontrola esku gutxi batzuetan ezartzen da. Beste era batera esanda, pertsona gutxi batzuek erabakitzen dute non berrinbertitu edo non egin urbanizazio-prozesua, nola egin eta zertarako.

Hala, lotura estua dago kapitala metatzearen eta urbanizazio-prozesuen artean, eta kontuan izan behar da turismoa eremuen eraldaketa sakona dakarren hiri-prozesu bat dela, diruak, salgaiek eta lan-indarrak zirkulazioan jarrai dezaten (Harvey, 2020). Eremu turistikoaren produktzioa beharrezkoa da, inbertsio berrien gune, eta, nolabait, gehiegizko metaketaren aringarri bihurtzen baita. Turismoarekin lotutako urbanizazio-prozesuekin, alde batetik, produkzio-bitartekoak sortzen dira, inbertsio-fluxu handien bidez, eta, bestetik, pertsona gutxi batzuen gozamenerako merkantziak.

Hortaz, eremu turistikoak, urbanizazio-prozesu horien barruan, produkzio-bide handitzat hartzen dira, non beren osagaiak, naturalak (hondartzak, oihanak, arrezifeak, etab.) edo beste izaera batekoak (hiri-guneak, monumentuak, etab.), ahalik eta irabazi gehien lortzeko ezartzen diren. Eta, aldi berean, aisialdirako gune horiek merkantziatzat hartzen dira, batez ere kontsumorako planteatuta eta antolatuta daudelako (Escalera et al., 2018).

Gainera, beste arrazoi batengatik ere interesatzen zaio kapitalismoari turismoaren industria: produktu "iragankorra" delako. Etengabeko hazkundearen ideiarekin jarraituz, gutxieneko aldi baterako kontsumoa sortzea bilatzen da, eta, beraz, ondasun galkorrak ekoizten saiatzen dira. Jarduera turistikoa oso interesgarria da kapitalismoarentzat, bizi ondoren desagertzen diren esperientziak saltzea baititu (Harvey, 2020). Alabaina, lurraldean sortutako aldaketak ez dira desagertzen.

Gaur egun, urbanizazioa da kapital-metaketaren motorra, industrializazioaren gainetik, eta hori eremu turistikoari esker da. Fenomeno horri urbanizatze planetarioa deitzen zaio, eta hiria planetaren bazter guztietara hedatzea du ezaugarri, metaketa helburu (Escalera et al., 2018). Hala ere, kontsumorako turismo-produktuak eratzeko, espazioa eraldatzeko prozesu konplexu horiek nola gauzatzen diren planteatu beharko litzateke. Jarraian, jabetza kentzeagatiko metatze-prozesuari helduko zaio, kapitalak espazio eta baliabide naturalak eskuratzeko duen modu gisa, aipatutako urbanizazio-prozesuak hasteko.



Iturria: guk egina

3.2. Jabetza kentzeagatiko metaketa

Eremu turistikoaren ekoizpenaren egikaritzea lurraldeak desjabetuz hasi ohi da, eta horien bidez azpiegitura sartzten da eta, oro har, espazioa berrantolatu egiten da kapitala metatzeko eredu berrirantz (Cañada eta Gascón, 2016; Escalera et al., 2018).

Horrela, **Jabetza kentzeagatiko metaketa** gertatzen da, eta egungo sistema kapitalistari eustea eta orain arte merkatura itxitako esparruak merkantilizatzea du helburu (Harvey, 2005). Jabetza kentzeagatiko metaketa horrek hainbat jardunbide ditu, hala nola lurra pribatizatzea, lurrak eskuratzeko populazioak kanporatzea, zeinbait jabetza-mota jabetza pribatu bihurtzea, ekoizteko eta kontsumitzeko modu bakarra inposatzea, kredituen bidezko zorpetzea, baliabide naturalen jabetze koloniala, gizakien trafikoa, etab. (Van Noorlos, 2013). Jarduera turistikoaren ekoizpenean gertatzen dira praktika horiek, non estatuek paper garrantzitsua jokatzen duten legeriaren eta indarkeriaren bidez (erakunde- aparatuekin, hala nola armadarekin edo poliziarekin); hori aipatutako praktikak gauzatzeko eta, azken finean, ekoizpen kapitalistaren sistema iraunarazteko erabiltzen da (Guerra eta Skewes, 2010).

Jardunbide ohikoenetako bat lurrak metatzea da. Prozesu horren bidez, nazioarteko edo nazioko inbertitzaile handiek, hertsaduraren, pertsuasioaren bidez, edo legalki edo legez kanpo, lur-azalera handiak eta horien erabilerarekin lotutako emakidak lortzen dituzte. Bereganatze horrek, eremu bat eskuratzeko errealitate fisikoaz gain, haren kudeaketa kontrolatzeko prozesu sozioekonomiko bat ere eskatzen du (Gascón eta Ojeda, 2014). Praktika hori industria agroindustrialeko edo bioerregaien industriako konpainia handiekin lotu ohi da, baina, beste kasu batzuetan, metatze-prozesuak turismoaren eta higiezinaren sektoreari zor zaizkio (Rosenberg, 2018; van Noorlos, 2013).

Jabetza-kentzeagatiko metaketari dagokionez, Jason Moorek (2015) jabetzeagatiko metaketa ere nabarmentzen du. Produkzio-modua hedatzen, zenbait elementu eskuratu ohi dira. Beraz, Moorek lau elementu ezartzen ditu: lan-indarra, energia, elikagaiak eta lehengaiak. Haren arabera, turismo-jarduerak modu intentsiboan erazten ditu beti osagai horietako bi, gutxienez: lan-indarra eta lehengaiak (Moore, 2015).


Lehengaia lurrarekin, paisaiarekin eta baliabide naturalekin erlazionatzen da, ezinbestekoak baitira sektore turistikoa garatzeko lurralde pobretuetan. Turistak erakartzeko pizgarria izateaz gain, paisaia jabetze-, funtzionalizazio- eta homogenizazio-prozesuen parte izan ohi da, aldaketak lurraldearen kanpotik sustatzen baitira politika globalen bidez (Cuevas, 2015). Horiek jatorrizko ezaugarriak galtzen dituzte eta ondasun material bihurtzen dira. Askotan, fikziozko paisaiak ere sortzen dira, naturaren irudikapen gisa, irabaziak ekoizten jarraitzeko (Gössling, 2002). Orduan, turismoaren bidez lurralde horietan saltzen diren paisaiak ez dira jatorrian kapitalak sortutakoak, eskuratutakoak baizik (Moore, 2016; Escalera et al., 2018).

Lan-indarrari dagokionez, oso garrantzitsua da eskulan merkea edo, are, doakoa bereganatzea. Hori lortzeko, komunitateen memoria biokulturala ezabatu nahi da, eta turismoa garapenerako motorra delako ideia txertatu. Memoria biokulturalak belaunaldiz belaunaldi transmititutako ezagutza kolektibo asko, esperientzia asimilatuak eta abar biltzen ditu. Horrela, komunitateek beren kultur kodea ahazten dute, zerbitzu turistikoen emaile gisa proletarizatuak izateko (Escalera et al., 2018). Gainera, sistema kapitalistari lotutako jarduera turistikoak botere korporatiboaren kontzentrazio handiagoa dakar, eta negozio txikiak, berriz, gero eta ahulagoak dira (Moore, 2016; Bianchi, 2009).

Horregatik guztiagatik, politika ekonomiko globalek, turismoaren bidez, kolonizazio modu berri bat sortu dute, eraldaketa ekonomiko, sozio-espazial eta kulturala eratuz hura ezartzen den tokian, paisaia naturalak hiri-prozesuen bidez aldatuz (Buades, et al., 2012; Cuevas, 2015). Jarraian aztertuko den bezala, herrialde pobretuetan garapenaren diskurtsoa erabili da, eta zenbait politika erabili dira kolonizazio-modu berria gauzatzeko.

4. Turismoa herrialde pobretuetan

Aurreko atalean aipatu bezala, turismoa mendebaldeko ideien arabera garatzen den eraikuntza da (Hiernaux, 2002). Oro har, herrialde industrializatuak pertsonak dute aukera turismoa egiteko, eta gero eta ohikoagoa da hori lurralde pobretuetan egitea, beren errealitatek erabat kanpo. Izan ere, deigarria da azken urteetan herrialde pobretuetan turismoak izan duen hazkunde kuantitatiboa. Adibidez, Asiako hego-ekialdea: Birmania, Brunei, Kanputxea, Filipinak, Indonesia, Laos, Malasia, Singapur, Thailandia, Ekialdeko Timor eta Vietnam. Eskualde horrek ia bikoiztu egin zuen nazioarteko turisten kopurua: 2010ean 70,5 milioi bisita izan ziren, eta 2019an 138,6 milioi (ikus 2.2 grafikoa). 2019an, Asiako hego-ekialdeko turismoak 179.000 milioi ABEetako dolar sortu zituen (Statista, 2020).



Iturria: guk egina. Datuak: Statista

Turismoaren industria askotan motor ekonomiko bihurtu da. Joerek adierazten zuten gorabidean zeuden ekonomiek % 4,4ko hazkundea izango zutela urtean 2030era arte (Palafox, 2013; Cuevas, 2015), baina COVID-19aren krisiaren ondorioz, joera horiek aldatu egin dira.

Garraio-kostuak murriztea faktore erabakigarria izan da azken urteotan herrialde pobretuetara egindako bidaien hazkundean. Horrek eskaria handitzea ekarri du, gehiago baitira bidaiatu dezaketen pertsonak, eta helmuga turistiko berriak ere agertu dira (Cuevas, 2015). Hala eta guzti, horrek lurraldearen aldaketa handia dakar herrialde pobretuetan, erritmo bizkorrean eraiki baita behar den azpiegitura, eta horren ondorioz desberdintasunak sortu dira tokiko gizarteetan, eta paisaia naturalak eskuratu dira (Gascón eta Ojeda, 2014).

4.1. Turismoa garapen-tresna gisa

Nazioarteko hainbat erakundek garapenaren motor funtzioa esleitu diote nazioarteko turismoari, baita pobrezia murrizteko eta gizarte pobretuak eta aberatsenak bereizten dituen arrakala murrizteko funtsezko osagaiarena ere. Sektore ekonomiko hori garapenerako bide azkar, merke eta sinpletzat hartu da, eta, gainera, herrialde pobretuen industrializazio zapuztuaren alternatiba gisa (Buades, et al., 2012).

Pobretutako eskualdeak 60ko hamarkadaren amaieran sartu ziren turismoaren mundu-egituran. Garai hartan, garapenerako estrategia eta eredu berri bat hartu behar izan ziren, herrialde batzuetan zegoen "Inportazioen Ordezko Industrializazioaren" prozesua krisian sartzen hasi baitzen. Garai horretan, nazioarteko erakundeak nazioarteko turismo-korronteak bultzatzen hasi ziren, herrialde pobretuen zorrak murrizten laguntzeko eta, horrela, pobrezia murrizteko diru-iturri gisa (Westreicher, 2019). Ildo horretan, ziurtzat jotzen zen sektore turistikoaren eskutik zetozen enpleguek eta dibisek garapen-berme bat ezarriko zutela.

Horrela, alde batetik, gorabidean zeuden ekonomiek garapen-mekanismoak bilatzen zituzten, eta turismoak zituen zenbaki positiboak kontuan hartuta, lurraldeak turismoari eta horrek zekartzan eragin makroekonomikoei, hala nola BPGaren hazkundeari irekitzea erabaki zuten. Horrenbestez, aisialdirako eremuak eraiki ziren, inbertsioak erakartzeko asmoz (Buades, et al., 2012; Escalera et al., 2018). Bestalde, pobretutako lurraldeak, beren natura-, paisaia- eta kultura-baliabideekin batera, interesgarriak ziren ekonomia globalarentzat, hainbat faktorengatik. Lehenik eta behin, bisitariak eta atzerriko inbertsioak erakartzen zituztelako eta, azken batean, turismoa merkaturatzeko giltzarri zirelako. Eta, horrez gain, ekoizpen-modu kapitalistak bere burua eraldatu behar duelako eta turismoa eredu ekonomiko hori sendotzeko modu bat delako: dibisak sortuz, inbertsioa bultzatuz eta produkzio-kosturik gabeko produktu bat esportatuz, pobrezia aurre egiteko diskurtsoari jarraikiz (Palafox, 2013).

Turismoa, beraz, mendebaldetzeko eta modernizatzeko bidetzat hartu da (De Kadt, 1979; López eta Marín, 2010). Horrela, herrialde pobretuetan turismoa garatuz, zenbait helburu lortzea espero zen, bai eta kanpo-merkataritzan irabaziak sortzea, BPGaren hazkunde handia lortzea, inbertsio pribatua bultzatzea, dibisak eta enplegua sortzea eta, ondorioz, modernizazioa lortzea eta pobrezia arintzea ere (Thalasselis, 2020). Hala ere, garapen-politika hori turisten eta sor zitezkeen diru-sarreraren kopurua maximizatzerako bideratuago zegoen (Vargas, Castillo eta Zibumbo, 2011), eta ez zituen kontuan hartzen zenbait faktore; esterako, eredu hori osatzen zuten gizarteen eta lurraldeen arteko desberdintasuna.

4.2. Baldintza desberdinak turismoan parte hartzen dutenen artean

Turismoaren industriaren garapena globalizazio modu bat da, beraz, eta mundua joko-taula liberal bihurtzen du (Escalera et al., 2018). Taula horretan, garapen turistikoak parekotasunik gabeko baldintza planteatzen ditu. Elkarren oso desberdinak diren gizarteak daude tartean, botere- eta merkataritza-baldintza desberdinak eta atzerriko eta tokiko kapitalaren interesak. Beste era batera esanda,

garapenaren balio global batzuk ezartzen dira tokiko errealitateetan, eta nazioarteko presioaren aurrean duten sentsibilitatea areagotzen da (Thalasselis, 2020).

Hortaz, turismoa herrialde industrializatuen eta periferikoen arteko harreman hierarkiko eta estrukturala da, ustiapenean eta mendekotasunean oinarritua (De Kadt, 1979; López eta Marín, 2010), non finantza-gaitasun handia duten herrialdeen rola "eskarikoa" den, herrialde horiek baitira bisitarien igorleak; herrialde pobretuen rola, berriz, "eskaintzakoa" da (Agut, 1979; López eta Marín, 2010), turisten hartzailak baitira, eta, gainera, dituzten baliabide natural eta kulturalen aniztasuna eskaintzen baitute. Eskaintza horretan, hala ere, iparralde globaleko korporazio transnazionalak ere hartzen dute parte, eta etekinen zati handi bat eskuratzen dute. Horrek esan nahi du gizarte pobretuak merkatuaren eskakizun aldakorren mende daudela, eta horrek egiturazko doikuntza jakin batzuk eskatzen ditu, hazkunde ekonomikoaren izenean herrialde industrializatuekin bat etorrira (Buades, et al., 2012; Thalasselis, 2020).

Horregatik guztiagatik, esan daiteke turismoa erreferentziazko sektorea dela mendekotasun ekonomikorako, iparraldeko herrialdeek menderatzen baitute. Gainera, horrek esan nahi du ekonomia industrializatuen desorekek eragin zuzena dutela ekonomia pobretuetan (Cuevas, 2015). Beste era batera esanda, turismoa hazkunde ekonomikoa soilik artikulatzen duen eta desberdintasunak areagotzen dituen jarduera da, jarraian azalduko dugun moduan.

Sektore hori iristeak aldaketa ugari eragiten ditu lurralde pobretuetako ekonomietan. Biziraupeneko ekonomiak soldatapeko bihurtzen dira, eta lan-aukera ugari sortzen dira. Alabaina, industria horrek ezartzen den tokian sortzen duen ekonomiaren zati handi bat ekonomia informala da, hau da, kontraturik gabeko enpleguen inguruan sortzen den ekonomia informala, non langilea zerga-kontrolarik eta legeak ematen dion babesetik kanpo dagoen. Ekonomia mota horretako enpleguen ezaugarri nagusia prekaritatea da: lanaldi luzeak, soldata baxuak, oporrik eza, laneko segurtasunik eza, behe-denboraldian langabezia handitzea, etab. (Buades, et al., 2012; Bianchi, 2009). COVID-19aren krisiaren aurretik, informaltasuna gero eta handiagoa zen, eta sektore formalaren barruko pobrezia ere hazten ari zen arren, sektore informalaren baldintzak okerragoak ziren liberalizazio ekonomikoaren ondorioz, prekaritate handiagoa baitakar.

Egia da sektoreak lan-aukera berriak sortzen dituela, baina pertsona guztiek ez dituzte lan-mundu berri horretara sartzeko baldintza berberak, eta talde jakin batzuk desabantailan geratzen dira. Hori ulertzeko, kontuan izan behar da gizonek menderatzen dituztela autoritate- eta botere-erakundeak, eta ekonomia gizonek eta, zehazki, gizon zuriek moldatu dutela. Eta ez hori bakarrik, familia heterosexualek bidezko gizarte-erproduzioa eta gatazkatsuak ez diren familia barruko dinamikak ere ziurtzat jotzen dira; etxeko beste modu alternatibo batzuk eta emakumeak buru dituzten etxeen eta "ohikoak ez diren" beste etxe batzuen ehuneko gero eta handiagoa ikusezin bihurtzen da. Horren ondorioz, ekonomia orokorrean bezala, industria generoaren, klasearen eta etniaren arabera egituratuta dago zeharo (Cole, 2016; Ashley, Boyd eta Goodwin, 2000), eta aldagai horiek elkarren arteko lotura dute.

Turismoaren industriak hainbat desparekotasun ditu generoari dagokionez, eremu eta maila guztietan (Moreno eta Cañada, 2018; Cole, 2016). Historian zehar, generoak lana, soldatapeko lana, familia, ezkontza, erritualak eta abar hainbat modutan antolatu eta moldatu ditu mundu osoko gizarteetan. Generoa nagusi bihurtu da lana kapital neoliberalaren metaketaren barruan antolatzeko, emakumeak lan-munduan erabili eta botatzeko piezatzat hartuz. Beraz, hierarkia bat sortzen da langile-klasearen artean lan-merkatuaren barruan (Moreno eta Cañada, 2018; Fagertun, 2016).

Ezin da alde batera utzi emakumeek lan-indarraren funtsezko pieza gisa betetzen duten funtzioa, ekonomian oro har, eta, zehazki, turismo-jardueran. Nahiz eta gehienetan emakumeek sektorean zuzenean lan egiteko aukerarik ez izan, industria horrek ezingo luke funtzionatu emakumeek egin behar duten etxeko eta zaintzako lanik gabe. Doako lan-indarra da, kapitalarentzat funtzio horrek ez baitu inolako "baliorik", eta ez baitago aitortuta. Gainera, posible egiten du gizonek lanpostuetarako eta produkzio-prozesuak funtzionatzeko aukera izatea (Escalera et al., 2018). Turismo-jarduerari dagokionez

emakumeek ordaindutako enpleguak dituzten kasuetan, ostalaritzan eta jatetxeen arloan kontzentratuta egon ohi dira, eta, beraz, zaintzarekin eta etxeko lanekin lotutako hedapentzat hartzen dira (Cañada, 2015; Moreno eta Cañada, 2018). Gainera, baldintza okerragoak izaten dituzte, hala nola soldata baxuagoak, sektorean gizonen eta emakumeen artean dagoen soldata-arrakala dela eta. Turismoaren sektorean emakumeek egiten duten lanaren ehunekoa % 60tik (Bolivian, esaterako) ia % 10era bitartekoa da (herrialde musulman batzuetan). Kontuan izan behar da, halaber, emakumeek askotan lan informalak egiten dituztela, hala nola kaleko salmenta (Ashley, Boyd eta Goodwin, 2000; Cañada, 2015).

Gainera, emakumeak izan ohi dira turismoak askotan sortzen dituen baliabide naturalak (adibidez, ura edo egurra eskuratzea) galtzen dituzten lehenak. Izan ere, baliabide horiek galtzeak eragotzi egiten die etxean zaintza-lanak betetzea, elikagaiez hornitzea eta ura kudeatzea (Cole, 2016). Horretaz gain, turistak iristeak klase baxuenetako emakumeen sexu-esplotazioa dakar gizarte askotan.


Era berean, turismoak enplegua sortzeko duen gaitasunak migrazio-mugimenduak eragiten ditu, herrialdeko beste leku batzuetako edo inguruko herrialdeetako pertsonak helmuga turistikoetarantz joaten baitira, bizimodua ateratzeko modu berrien bila. Horiek zailtasun gehiago izaten dituzte, bizi-maila askoz handiagoa duten eskualdeetara iristean ezin baitiete aurre egin etxebizitza baten gastuei, eta baldintza okerragoak dituzten lanak onartu behar izaten dituzte, eta horrek, aldi berean, lehia eta gatazka handiagoak sortzen ditu tokiko biztanleekin (Ashley, Boyd eta Goodwin, 2000; Buades, et al., 2012).

Ikuspegi interseksionaletik, migratzaileen taldearen barruan, emakumeak dira baldintza okerrenak dituztenak, eta askotan sexu-esplotazioa jasaten dute, aipatu bezala (Moreno eta Cañada, 2018).

Gizarte-klaseak ere alde handiak sortzen ditu lan-migratzaileen talde horren barruan; izan ere, baliabiderik gabeko emakume migratzaileek enplegu prekarioekin konformatu behar dute, eta aldez, lanpostu kualifikatuak mendebaldekoek edo herrialdeko edo inguruko herrialdeetako emakume migratzaile kualifikatuak betetzen dituzte (Buades, et al. 2012).

Turismo-arloko enpleguaren baldintza eskasak eta planteatzen dituen desparekotasun-baldintzak kontuan hartuta, turismo-industria onuragarria dela esan daiteke, pertsonak sektorean sartzeko aukera badute eta parte hartu badezakete (Gascon eta Ojeda, 2014; Ashley, Boyd eta Goodwin, 2000). Sektorea ezarri ondoren aurkeztzen diren baldintzak aztertuta, geure buruari galdetu beharko genioke zein diren horren ondorioz sortzen diren inpaktuak.

2. Irudia. Baldintza desberdinak turismoan parte hartzen dutenen artean



Iturria: guk egina

5. Turismoa herrialde pobretuetan ezartzeko mekanismoak

Orain geure buruari galdetu beharko genioke nola lortzen den gizarte pobretuak sartzea turismo-ekoizpenak dakarren taula liberal honetan. Herrialde pobretuetan sektorearen garapena nazioarteko erakundeek, instituzioek, korporazioek eta gobernuek parte hartzen duten prozesu konplexuen eskutik dator. Industria hori garatzeko egindako prozedurak herrialdea nazioarteko merkatura irekitzean oinarritzen dira, estatuak garapenaren eta zorra murriztearen aldeko gutxieneko esku-hartzearekin (López eta Marín, 2010). Prozesu horrek 80-90eko hamarkadetan Latinoamerikan meatze-industriak izan zuen garapena gogorazten du, turismoa baliabideak atera arte ustiatzen den meategia baita, ezer sartu edo "eman" gabe (Tot inclòs, 2018).

Herrialde pobretuen turismo-industrializazioa azaltzeko, honako atal hauetan gauzatutako prozesua laburbiltzen da:

i. Nazioarteko erakundeen esku-hartzea

Mundu mailako turismo-ereduaren erreprodukzioa azaltzen duten faktoreetako bat munduko erakunde-multzo baten esku-hartzea da. Esan bezala, hirurogeiko hamarkadaz geroztik, turismoa nazioarteko erakundeek –besteak beste, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), Munduko Bankuak (MB), Turismoaren Mundu Erakundeak (TME), Garapenerako Banku Interamerikarrak (GBI) eta Asiako Hego-ekialdeko Nazioen Elkarrekin (ASEAN)– sustaturiko politika "desarrollista" gisa bultzatu eta indartu da (De Kadt, 1979; López eta Marín, 2010). Erakunde horiek turismoak garapenerako eta modernizaziorako tresna gisa hartzen duen esparru kontzeptuala eta ideologikoa ezartzen dute (Thalasselis, 2020). Errealitate hori ez da aldatu globalizazioaren garaian, ideia modernizatzaileak bere horretan jarraitzen baitu, baina modu neoliberallean, finagoan; gainera, eredu ekonomikoa iraunarazteko nazioarteko erakundeen tresna da (López eta Marín, 2010).

Horregatik, gorabidean zeuden ekonomiak beren lurraldeak turismoaren sektorerara irekitzeko konbentzitu zituzten, beren ekonomietan lehentasunezko posizioa emanez eta beren garapenean inbertitu nahi zuten atzerriko kapitalak jasoz. Herrialde askok erabaki zuten proiektu turistiko handiak hastea herrialde industrializatuek ezarritako parametroen esparruan (Thalasselis, 2020; De Kadt, 1979; Palafox, 2013).

ii. Estatuaren zeregina eta kapitalari irekitzea

Estatuak funtsezko zeregina du turismo-jarduera garatzeko; izan ere, tokiko eskala artikulatzen du turismoaren sistema globalarekin eta geopolitikarekin, lurraldeak bereganatzen baititu sektorearen premien arabera eraldatzeko. Estatuaren eraldaketa nagusia negozioetarako giro segurua bermatzeko (Thalasselis, 2020), edo, bestela esanda, komunitateko baliabide naturalak eta kulturalak dauden lurraldean atzerriko kapitalaren etorrera erakartzeko egitura- eta antolaketa-baldintzak lortzean datza (Palafox, 2013).

Prozesu horretan, estatuak beharrezko azpiegitura eraikitzen dute, eta nazioarteko erakundeek finantzatzen dute neurri batean. Horrez gain, korporazio transnationalei eta atzerriko inbertsioei sarrera eman ahal izateko arau-oinarriak ere prestatzen dituzte. Barne-egitura politikoak kapital globalera egokitzea behartzen dira, ezarpen hori modu baketsuan egin dadin, eta, horretarako, lege-erregulazioa kentzeko prozesuak egiten dira, lurzorua erabiltzeko erraztasunak ematen dira, etab. Horrela, eremu turistikoaren produkzioan geografikoki desberdinak diren lurraldeak lortzen dira, non populazioaren beharrak bigarren mailara igarotzen diren eta produktibismoa nagusitzen den (Escalera et al., 2018).

Horrez gain, estatuak nazioaren nortasunak eratzearekin eta turismo-sektoreak ongizatea sortzeko duen garrantziarekin lotutako diskurtsoak eta irudiak sortzeko zeregina du (Thalasselis, 2020).

iii. Transnazionalak eta itzulera-tasa

Urteek aurrera egin ahala, lurralde pobretuetara bidaiatzea erabakitzen duten pertsonen kopurua esponentzialki hazi da; hala ere, badirudi zorioneko garapen-diskurtsoak ez duela aurreikusitako eragina izan, eta lurralde horietako pertsonen bizitzak jarduera turistikoaren mende daudela, ez dirudi asko hobetu direnik (Gascon eta Ojeda, 2014). Izan ere, hazkunde ekonomikoak ez du esan nahi desberdintasuna desagertzen denik. Eta, gainera, turisten etorrera-kopuruak ez du bermatzen horien eragin ekonomiko baliokidea. Izan ere, turista bakoitzak sortzen duen aberastasuna jaitsi egiten da urtez urte, eta gaur egun turista gehiago behar dira duela 20 urte sortzen zen dirua sortzeko (Tot inclòs, 2018). Era berean, turisten kopurua handitzeak langile-klasearen lan-egoera okerragoa eta paisaia-eta kultura-degradazio handiagoa dakartza. Beraz, nazioarteko turismoak sortutako onurak diskurtso hegemonikoak esaten zuena baino ahulagoak dira, eta hori, neurri batean, inbertsioen itzulera-tasa altuaren ondorioa da (Buades, et al., 2012).

Kapitalaren itzulera hori gertatzen da, turismo-jarduera pobretutako lurraldeetan gertatu arren, herrialde industrializatuetatik ateratzen den turisten fluxu handia herrialde horietako jatorrizko korporazio transnazionalak kontrolatzen dutelako, eta beren inbertsioetara bideratzen delako (garraio-enpresak, hotel-enpresak, etab.) (Gascón eta Ojeda, 2014; López eta Marín, 2010). Milioika pertsona herrialde pobretuetara turismoa egitera joateak esan nahi du diru-kopuru handiak herrialde hegemonikoetatik. Horren aurrean, ekonomia industrializatuak erabaki zuten beren enpresak han, dirua gastatzen zen lurraldeetan, ezartzea, dibisen ihesa geldiarazteko. Horrela, zirkulua ixtea lortzen da, herrialde industrializatuetatik ateratzen diren dibisen itzulera areagotua ziurtatuta (Thalasselis, 2020). Ondorioz, itzulera-tasa hori eta finantza-estrategia hori aztertuta, esan daiteke nazioarteko sistema kapitalistak garapen ekonomiko sortzen duela gutxiengo batentzat eta azpigarapena gehiengo batentzat. Enpresa transnazional horiek pribilegio jakin batzuk izan ohi dituzte, hala nola zergak ordaintzetik salbuetsita egotea kasu batzuetan, edo finantzen gardentasunaren, tokiko eta nazioarteko mailan jasandako fiskalitatearen, ingurumen-iraunkortasunaren edo langile-klasearen eta tokiko biztanleriaren eskubideen inguruko erregularizaziorik eza (Buades, 2006).

Orduan, gorabidean dauden ekonomietako turismo-jarduera, batez ere, MBk, NDFk eta halako finantza-erakundeek sustatzen dute. Estatuaren eginkizuna funtsezkoa da prozesuan, inbertsioei eta enpresa transnazionalari ireki ahal izateko beharrezkoak diren azpiegitura eta oinarri juridikoak gauzatzeaz arduratu behar baitute. Herrialde industrializatuetakoko enpresak direnez, turista-klaseak gastatzen duen diruaren zati handi bat herrialde industrializatuetakora itzultzen da. Diskurtso hegemonikoa lurralde pobretuen garapenak ekarriko lukeen hazkunde ekonomiko lortzean oinarritzen da (De Kadt, 1979; Buades, 2006; Thalasselis, 2020). Hala ere, garapena ez da soilik diruan oinarritu behar, baina, hala izanez gero, turismoaren inguruan sortzen den diskurtso hori erabat baliogabetuta geratzen da, garapen-politika horren bidez irabazien zati handi bat ekonomia industrializatuen hazkundera bideratzen dela frogatzen baita. Gainera, egia da inpaktu positibo batzuk sortzen direla lurralde pobretuetako biztanleen alde, baina inpaktu negatibo eta desberdintasun asko ere gertatzen dira jarduera horren inguruan. Jarraian aipatuko ditut.


6. Turismoa garatzearen inpaktuak

Aurreko guztiarekin, turismoak hainbat inpaktu sortzen ditu ezartzen den tokian. Inpaktu horietako batzuk onuragarriak dira sektorea ezartzen den herrirentzat; beste batzuk, berriz, populazioen interesaren aurkakoak dira, eta kaltegarriak dira paisaia natural eta kulturalentzat, baita planetarentzat ere. Jarraian, turismoaren industriak sortzen dituen desordena ugarietako batzuk aipatuko ditut.

i. Hazkunde ekonomikoa eta enplegua

Ezagun da jarduera turistikoak diru-sarrera ekonomikoak eta enpleguak sortzeko gaitasuna duela. Sektore horri esker, lanpostu berriak sortzen dira, diru-sarrerak lortzeko modu berriak, mugikortasun sektorialari dagokionez lan-mugikortasuna handitzea eta lan-indarraren hedapena eta eraldaketa (Vargas, Castillo eta Zibumbo, 2011). Gizarte asko biziraupen-ekonomiak izatetik soldatapeko ekonomiak izatera igarotzen dira (Macrae, 2003).

3. grafikoa: Turismo-sektoreak BPGari egindako zuzeneko ekarpenaren bilakaera munduan 2013-2019 (bilioi AEBetako dolarretan)



Iturria: guk egina. Datuak: Statista

Turismoak bizimodua ateratzeko modu berriak sortu ditu, eta, horri esker, pertsona askok parte hartu ahal izan dute ondasun eta bizimodu "modernoen" kontsumitzaile berri gisa. Hala ere, aurreko atalean aipatu bezala, pertsona guztiek ez dituzte turismoak sortzen dituen etekin horiek eskuratzeko baldintza berak.

ii. Megaurbanizazio-prozesuak

Masen turismoaren eta, turismoan enplegu baten bila, herrialdeko beste leku batzuetatik edo beste lurralde batzuetatik etorritako lan-indarraren etorrerarekin, hiriguneek urbanizazio-prozesu handiak jasaten dituzte. Hiri turistikoak dira azkarren hazten direnak, eta gainera, bi klase erabat ezberdinen arteko elkarbizitza gertatzen da: turista eta langilea.

Turismoak sortzen dituen urbanizazio-prozesuei lotuta, eta ingurumen-aldaketa globala gizakiak lurrean eragiten dituen ekintza suntsitzaile guztien batukaritzat hartuta, nabarmendu behar da lurraren aldaketa dela ingurumen-aldaketa globalaren osagai indibidual garrantzitsua. Izan ere, zuzenean eraldatzen ez den lurra bera ere ondoko eremuen zatiketaren eraginpean dago (Gössling, 2002; Escalera et al., 2018). Beraz, megaurbanizazio-prozesu horiek eragin handia dute ingurumenean, bai tokian-tokian, bai oro har.

iii. Turistifikazioa

Lur-eskaria handitzen denean, turismoa eskualde batera iristen denean gertatzen den bezala, hori merkantziatzat jotzen hasten da, eta, beraz, prezioak gora egiten du (Gascón eta Ojeda, 2014). Lurra inbertsio errentagarri bihurtzen da eta espekulazioa bultzatzen du, eta ondorioetako bat turistifikazioa da (Sigit, Anjana eta Wardani, 2020). Turistifikazioa da, tokiko biztanleen premien orde, turisten beharrak asetzera bideratutako instalazioek eta zerbitzuek duten inpaktua. Kontuan izanik gentrifikazioa klase sozial batek beste klase bat mugiaraztean datzala; turistifikazioaren oinarria da bertan bizi diren ia pertsona guztiak interes turistiko handiko eremu batetik mugitzea, turisten klasearen beharrak asetzeko. Une bat iristen da, non tokiko biztanleek ezin duten beren lurraldean bizitzen jarraitu bizi-mailak gora egin duelako, eta beste lurralde batzuetara joatea beste aukerarik ez dute.

iv. Nekazaritza galtzea

Turismoa ezarrita dagoen lurraldeetan kapitalak aurrera egin ahala, lur asko bereganatzen edo eskuratzen dira. Turismorako urbanizazioa ezartzen den lur horietako asko nekazaritza-lurak dira, jabetza kentzeko prozesuen bidez eskuratutakoak (Aledo, 2008). Gainera, belaunaldi gazteek gero eta interes gutxiago dute nekazaritza-sektorean lan egiteko, eta, beraz, belaunaldi zaharrenen esku geratzen ari da. Horrela, nekazaritzaren sektorea ahultzen ari da. Nekazaritzaren galera horren ondorioetako bat elikadura-subiranotasuna galtzea da, eta, horren ondorioz, herrialde industrializatuekiko mendekotasun handiagoa (Buades, et al., 2012).

Baina ez hori bakarrik; izan ere, turismoaren diskurtso hegemonikoak, garapen modu gisa, esaten zuen sektore horrek beste sektore batzuen hazkundera eragingo zuela, hala nola nekazaritzarena, turisten klasearen kontsumo-premia berriei erantzun behar baitzien. Hala eta guztiz ere, turismo-lurralde pobretuetan, turista-klaserako produktu asko turisten herrialdeetatik inportatzen dira, baita luxuzko produktuak, janaria eta abar ere (Gascón eta Ojeda, 2014). Hori dela eta, turismoarekin, beste sektore batzuek, hala nola nekazaritzak, ez dute hobera egiten, baizik eta ahuldu.

v. Neoliberalizazioa eta ur-eskasia

Turismo-industriak baliabide naturalak bereganatzen ditu garatu eta hedatu ahal izateko. Ura funtsezko baliabidea da azpiegitura turistikoa eraikitzeke eta erabiltzeko (igerilekuak, golf-zelaiak, etab.). Askotan, turismoaren industriak ur gehiegi erabiltzen du, eta tokiko biztanleek, aldiz, ez dute eskuraterik, lehorteengatik edo bestelako arrazoiengatik, klima-aldaketaren ondorioz pobretutako eskualdeetan gero eta ohikoagoak baitira halakoak. Gainera, emakumeak dira, lurralde horietan erabakiak hartzeko prozesuetan gutxien inplikaturik daudenak, ur eskasia hori gehien pairatzen dituenak; izan ere, emakumeak arduratzen dira ura etxera eramateaz, janaria prestatzeko, garbitzeko eta beste lan asko egiteko. (Cole eta Browne, 2015). Giza ongizaterako lehentasun gisa kudeatu beharrean, ura gero eta merkantzia eskuraezinagoa da tokiko komunitateentzat. Beraz, eremu turistikoetan gero eta ohikoagoa den ur-eskasia ez dio mundu guztiari berdin eragiten, eta tokiko herriak dira kaltetuenak (Buades, et al., 2012; Gössling, 2002).

vi. Klima-aldaketa

Nazioarteko turismoa gaur egun gehien kutsatzen duen industrietako bat da. Munduan egunero egiten diren milaka hegaldiek CO₂ isuri ugari sortzen dituzte, eta horrek berotze globala eragiten du. Kontuan izan behar da sektore hori herrialde industrializatuetako konpainia transnazionalak kontrolatzen dutela, eta, gero eta gehiago izan arren, pertsona "gutxi batzuek" baino ezin dutela bidaiatu. Hala ere, berotze global horrek planeta osoari eragiten dio, baina batez ere lurralde pobretuei, horiek baitira klima-aldaketaren ondorioen aurrean kalteberenak. Bestela esanda, klima-aldaketaren ardura gutxien duten gizarteak, lurralde pobretuetakoak, dira kaltetuenak (Gascón eta Ojeda, 2014).

Inpaktu horiek, eta beste batzuek, helmuga turistikoak gehiegi ustiatzea eta agortzea eragiten dute. Hori gertatu ostean, meatzaritzarekin gertatzen den bezala, beste lurralde batzuk ustiatzen dira, agortzea berriro gertatu arte.

3. Irudia. Turismoa garatzearen inpaktuak



Iturria: guk egina.

6. Ondorioak

turismoa, urbanizazio-prozesu baten parte den aldetik, kapitalismoak erreproduzitzen jarraitzeko eta kapitala eta aberastasuna pilatzen jarraitzeko erabiltzen duen tresna da, eta hura ezartzen den tokia, berriz, eraldatu eta ustiatu egiten da. Lurralde pobretuen kasuan, eta turismoaren bidez garapena lortuko dela eta pobrezia desagerraraziko dela aitzakiatzat hartuta, hainbat eragilek gauzatutako politika jakin batzuk behar dira, sektore hori ezarri ahal izateko. Eragile horien artean nazioarteko erakundeak daude, hala nola MB edo NDF, eta horiek eredu ekonomiko nagusia betikotzeko, estatuak turismora irekitzera bultzatzen eta konbentzitzen dituzte, askotan erreforma-paketeekin edo finantza-laguntzarekin. Estatuak ere zeregin garrantzitsua dute; izan ere, boom turistikoarekin bat egiteko, legezko oinarriak prestatu eta beharrezko azpiegitura eraiki behar dute, normalean iparralde globaleko herrialdeetakoak diren enpresa transnasionalek lurraldea ustiatu ahal izan dezaten.

Turismoa etengabe hedatu da planetan zehar, eta hainbat inpaktu eragin ditu. Inpaktu positibo nabarmenenak hazkunde ekonomiko eta enplegu berriak agertzea dira. Hala ere, eragin negatibo ugari izaten dira, hala nola desberdintasunak areagotzea, nekazaritza galtzea, gero eta nabarmenagoa den ur-eskasia, urbanizazio masiboa, turistifikazioa eta kultura- eta paisaia-degradazioa, besteak beste.

Gainera, turismoak, oro har, desberdintasunak sortzen ditu. Sektorean lan egiten duten pertsona guztiek ez dituzte lan-aukera eta -baldintza berdinak. Turismoa lan-baldintza eskasengatik da ezaguna, baina baldintza horiek are eskasagoak dira klase baxuenentzat, helmuga turistikora iristen diren eta edozein lan-mota onartu behar duten migratzaileentzat, eta are eskasagoak emakumeentzat, gainera, etxeko lanak eta zainketak egiten jarraitu behar baitute.

Ez hori bakarrik, krisi-garaietan agerian geratzen den sektorearen kalteberatasuna turismoaren beste ezaugarrietako bat da. Horren erakusgarri da COVID-19aren egungo krisiak eragin handia izan duela munduko turismoan. Pobretutako lurralde askotan pandemiaren krisia eragin handia izaten ari da, turistak joatearen mende baitaude erabat, biziraun ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, uste da eraikuntzan oinarritutako eta lurraldeen turismo-ustiapenari lotutako ekonomia batek markatutako logika hedatzaile neoliberalak ez dituela kontuan hartzen lurraldeen mugak eta ahalmen naturalak. Gainera, lurraldea nekazaritza-guneetan eta natur guneetan eraikiz arpilatzen denez, lurralde horietako belaunaldi berrien oroimen kolektiboa markatzen ari da. Era berean, azpimarratu behar da toki horiek meatzaritzako logikarekin ustiatzen direla, eta erabat desnaturalizatu eta ustiatzen amaitu ondoren, turismo-enpresak lurralde berrietara lekualdatuko direla prozesu bera errepikatzeko.

Turismoak joko-taula bihurtu du mundua, eta oso baldintzak desberdinak dituzten gizarteek parte hartzen dute bertan. Beraz, geure buruari galdetu beharko genioke zenbateraino den etikoa eta bidezkoa gizarte pribilegiatu eta aberastu batzuk gizarte pobretuen lurraldeak ustiatzera eta arpilatzen eta, gainera, haien aisialdiko "premiak" asetzeko langile-klase bat sortzera deitzen dituen jarduera hori sustatzen jarraitzea. Horregatik guztiagatik, etorkizuneko ikerketa-ildoetarako, interesgarria litzateke aztertzea krisia iritsi aurretik zegoen turismo-eredua eredu bidezkoago eta iraunkorrago batera aldatzeko aukera. Era berean, ikerketa sakonago batek turismoaren kontzeptua bera birpentsatzeko balio lezake, jarduera ezinbestean kaltegarria eta bidegabea den edo pertsona guztientzako errespetuzkoa eta iraunkorra den ikuspuntu batetik ulertzeko aukera dagoen aztertuz.

Bibliografia

- Aguilar, Arturo; Palafox, Alejandro eta Anaya, Julis Sderis (2015). "El turismo y la transformación del paisaje natural". *Nóesis. Revista de Ciencias Sociales y Humanidades* [Linean] 24 (47-1), 19-29, hemen eskuragarri: <https://www.redalyc.org/pdf/859/85939868002.pdf> [Kontsulta-data: 2020/10/08].
- Aledo, Antonio (2008). "De la tierra al suelo: la transformación del paisaje y el nuevo turismo residencial". *Arbor ciencia, pensamiento y cultura* [Linean], 184 (729), 99-113, hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.3989/arbor.2008.i729.164> [Kontsulta-data: 2020/11/07].
- Ashley, Caroline; Boyd, Charlotte eta Goodwin, Harold (2000). "Pro-Poor Tourism: Putting poverty at the heart of the tourism agenda". *Natural Resource Perspectives* [Linean], 51, hemen eskuragarri: <https://www.odi.org/sites/odi.org.uk/files/odi-assets/publications-opinion-files/2861.pdf> [Kontsulta-data: 2020/11/10].
- Bianchi, Raoul (2009). The "Cultural Turn" in Tourism Studies: A Radical Critique. *Tourism Geographies: An International Journal of Tourism Space, Place, and Environment* 11 (4): 485-504, hemen eskuragarri: [10.1080/14616680903262653](https://doi.org/10.1080/14616680903262653) [Kontsulta-data: 08/10/2020].
- Buades, Joan (2006). "Turismo, la globalización invisible". *Revista Pueblos* [Linean] 22, hemen eskuragarri: <http://www.revistapueblos.org/old/spip.php?article418> [Kontsulta-data: 2020/05/20].
- Buades, Joan; Cañada, Ernest eta Gascón, Jordi (2012). *El turismo en el inicio del milenio: una lectura a tres voces*. Madril: Foro de Turismo Responsable, Colección Thesis 3.

- Cañada, Ernest (2015). *Las que limpian los hoteles: Historias ocultas de precariedad laboral*. Icaria.
- Cañada, Ernest eta Gascón, Jordi (2016). "Urbanizar el paisaje: turismo residencial, descampesinización, gentrificación rural. Una introducción". *PASOS, Revista de Turismo y Patrimonio Cultural y Foro de Turismo Responsable*, [Linean] 5, 5-36, hemen eskuragarri: http://www.pasosonline.org/Publicados/pasosoeedita/PSEedita_16_Definitivo_e-book.pdf [Kontsulta-data: 2020/11/08].
- Cole, Stroma eta Browne, Mia (2015). "Tourism and water inequity in Bali: A social-ecological systems analysis". *Human ecology*, [Linean] 43 (3), 439-450, hemen eskuragarri: [10.1007/s10745-015-9739-z](https://doi.org/10.1007/s10745-015-9739-z) [Kontsulta-data: 2020/12/10].
- Cole, Stroma (2016). "A Gendered Political Ecology of Tourism and Water". *Political Ecology of Tourism: Community, Power and the Environment*. Londres: Routledge. Hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.4324/9781315717227> [Kontsulta-data: 2020/12/10].
- Cuevas, Tomás (2015). "Matices pluridisciplinarios de la actividad turística". *Noesis. Revista de Ciencias Sociales y Humanidades* [Linean] 4(1), 19-30, hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.20983/noesis.2015.12> [Kontsulta-data: 2020/11/08].
- De Kadt, Emanuel (1979). *Turismo ¿pasaporte al desarrollo? Perspectivas sobre los efectos sociales y culturales del turismo en países en vías de desarrollo*. Madrid: Endymion.
- Escalera, Alejandro; Palafox, Alejandro eta Ángeles, Manuel (2018). "La producción del espacio turístico en la era del capitaloceno". *Biblio3W Revista Bibliográfica de Geografía y Ciencias Sociales* [Linean] 0(1), hemen eskuragarri: <http://www.ub.edu/geocrit/b3w-1254.pdf> [Kontsulta-data: 2020/10/21].
- Fagertun, Anette (2016). "Labour in Paradise: Gender, Class and social Mobility in the Informal Tourism Economy of Urban Bali, Indonesia". *The Journal of Development Studies* [Linean] 53 (3): 331-345, hemen eskuragarri: <http://dx.doi.org/10.1080/00220388.2016.1184248> [Kontsulta-data: 2020/12/10].
- Gascón, Jordi eta Ojeda, Diana (2014). *Turistas y campesinado. El turismo como vector de cambio de las economías campesinas en la era de la globalización*. El Sauzal: Pasos Edita, Foro de Turismo Responsable.
- Gössling, Stefan (2002). "Global environmental consequences of tourism". *Global Environmental Change*, [Linean] 12 (4), 283-302, hemen eskuragarri: [https://doi.org/10.1016/S0959-3780\(02\)00044-4](https://doi.org/10.1016/S0959-3780(02)00044-4) [Kontsulta-data: 2020/10/07].
- Guerra, Debbie eta Skewes, Juan Carlos (2010). "Acumulación por desposesión y respuestas locales en el remodelaje de los paisajes estuariales del sur de Chile". *Chungará (Arica)* [Linean] 42(2), 451-463, hemen eskuragarri: <https://dx.doi.org/10.4067/S0717-73562010000200008> [Kontsulta-data: 2020/12/15].
- Harvey, David (2005). "El "nuevo" Imperialismo: Acumulación por desposesión". *Socialist Register 2004*, [Linean], 99-128, hemen eskuragarri: <http://biblioteca.clacso.edu.ar/clacso/se/20130702120830/harvey.pdf> [Kontsulta-data: 2020/12/15].
- Harvey, David (2008). "El derecho a la ciudad". *New left review* [Linean], 53, 23-39, hemen eskuragarri: <https://newleftreview.es/issues/53/articles/david-harvey-el-derecho-a-la-ciudad.pdf> [Kontsulta-data: 2020/05/06].
- Harvey, David (2020). *Razones para ser anticapitalistas*. Itzultzailea: Paula Vasile. Buenos Aires: CLACSO.
- Hiernaux Nicolas, Daniel (2002). "Turismo e Imaginarios". *FLACSO. Cuaderno de Ciencias sociales* [Linean], 123, 7-33, hemen eskuragarri: http://biblioteca.clacso.edu.ar/Costa_Rica/flacso-cr/20120815033220/cuaderno123.pdf [Kontsulta-data: 2020/10/15].

- Lefebvre, Henri (2013). *La producción del espacio*. Itzultzailea: Emilio Martínez Gutiérrez. Madril: Capital Swing.
- Lopez, Ángeles; Marín, Gustavo (2010). "Turismo, capitalismo y producción de lo exótico: una perspectiva crítica para el estudio de la mercantilización del espacio y la cultura". *Relaciones. Estudios de Historia y Sociedad* 2010, [Linean], XXXI(123), hemen eskuragarri: http://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0185-39292010000300008 [Kontsulta-data: 2020/10/15].
- Macrae, Graeme (2003). "The value of Land in Bali: Land tenure, Land Reform and Commodification." *Inequality, crisis and social change in Indonesia: The muted worlds of Bali* [Linean], 143-165, hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.4324/9780203401910> [Kontsulta-data: 2020/11/11].
- Moore, Jason (2015). *Capitalism in the Web of Life: Ecology and the Accumulation of Capital*. Verso Books, 61-82.
- Moore, Jason (2016). "El fin de la naturaleza barata: o cómo aprendí a dejar de preocuparme por "el" medioambiente y amar la crisis del capitalismo" *Relaciones Internacionales*, 33, 143-174, hemen eskuragarri: <https://revistas.uam.es/relacionesinternacionales/article/view/6731> [Kontsulta-data: 2020/10/22].
- Moreno, Daniela eta Cañada, Ernest (2018). *Dimensiones de género en el trabajo turístico*. Albasud [Linean], hemen eskuragarri: <http://www.albasud.org/noticia/es/1037/dimensiones-de-g-nero-en-el-trabajo-tur-stico> [Kontsulta-data: 2020/10/07].
- Turismoaren Mundu Erakundea (TME) (2017). *International Tourism Highlights*, hemen eskuragarri: <https://www.unwto.org/publications> [Kontsulta-data: 2020/06/26].
- Turismoaren Mundu Erakundea (TME) (2019). *International Tourism Highlights*, hemen eskuragarri: <https://www.unwto.org/publications> [Kontsulta-data: 2020/06/26].
- Turismoaren Mundu Erakundea (TME) (2020). *World Tourism Barometer*, hemen eskuragarri: <https://www.unwto.org/publications> [Kontsulta-data: 22/12/2020].
- Palafox, Alejandro (2013). "El turismo como eje de acumulación". *Nómadas. Critical Journal of Social and Juridical Sciences* [Linean], 161-174, hemen eskuragarri: https://doi.org/10.5209/rev_NOMA.2013.42347 [Kontsulta-data: 2020/10/07].
- Portillo, Alfredo (2002). "Una estrecha relación entre el turismo, la geografía y el mercadeo". *Geoenseñanza* [Linean], 7(1), 109-113, hemen eskuragarri: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=360/36070209> [Kontsulta-data: 2020/10/14].
- Richards, Greg (2017). "El consumo de turismo en la posmodernidad o en la modernidad líquida". *Oikonomics*, [Linean] 7, 5-11, hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.7238/o.n7.1702> [Kontsulta-data: 2020/10/22].
- Rosenberg, Ruben (2018). *Tourism and Land Grabbing in Bali. A Research Brief*. Amsterdam: Transnational Institute.
- Sigit, Irianto; Anjana, Komang eta Wardani, Widyarini (2020). "Function Transfer of Agricultural Land to be Settlements and Tourism in Gianyar District, Bali". *Dialogos*, [Linean], 24(2), 79 - 91, hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.4025/dialogos.v24i2.72> [Kontsulta-data: 2020/12/21].
- Thalasselis, Cristina (2020). "Internacionalización del turismo y desarrollo capitalista en América Latina". *Encuentros*, 18(3), 76-87, hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.15665/encuent.v18i3.2131> [Kontsulta-data: 2020/10/14].
- Vargas, Elva Esther; Castillo, Marcelino eta Zizumbo, Lilia (2011). "Turismo y sustentabilidad: una reflexión epistemológica". *Estudios y Perspectivas en Turismo*, 20, 706-721, hemen eskuragarri: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=180717583008> [Kontsulta-data: 2020/11/26].

Webgrafia.

colectivo Tot inclòs (2018). *Tot Inclòs. Danys i conseqüències del turisme a les nostres illes*. España. Hemen eskuragarri: <http://totinclos.cat/> [Kontsulta-data: 2020/06/26].

Montoro, Patricia (2018). "El Grand Tour y los primeros turistas". Despertaferro [linean], hemen eskuragarri: <https://www.despertaferro-ediciones.com/2018/grand-tour-y-los-primeros-turistas/> [Kontsulta-data: 2020/10/03].

Statista (2020). "Number of international tourist arrivals in Asia Pacific from 2010 to 2019, by region", hemen eskuragarri: <https://www.statista.com/statistics/261703/international-tourist-arrivals-in-asia-and-the-pacific-by-region/#:~:text=The%20Asia%20Pacific%20region%20has,139%20million%20international%20tourist%20arrivals.> [Kontsulta-data: 2020/11/26].

Statista (2020)a. "Evolución de la aportación directa del sector turístico al PIB en el mundo de 2013 a 2019", hemen eskuragarri: <https://es.statista.com/estadisticas/640133/aportacion-directa-del-sector-turistico-al-pib-mundial> [Statista: 2020/11/26].

Westreicher, Guillermo (2019). "Industrialización por sustitución de importaciones". Economipedia [Linean], hemen eskuragarri: <https://economipedia.com> [Statista: 2020/11/24].

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eziguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigratioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. **Txina: Garapen eredu biberatzea eta munduko ekonomian zeregin berria.** Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.

- 18.** Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
- 19.** Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 20.** Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa1, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Análisi Ekonomikoko Saila, EHU.
- 21.** Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona Garapenari alternatibean bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
- 22.** Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
- 23.** Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
- 24.** Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurrezaga Aurre, Elena Martínez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
- 25.** Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOA Institutua UPV/EHU.

